



Monika Etxebarria eta Xabi Payá itzultzaileak, atzo Donostian. :: F. I.

## Payá ausartu da Calderón-en 'Bizitza amets' itzultzera

Alain-Fournierren 'Meaulnes handia' ere eman da argitara 'Literatura unibertsala' bilduman, Monika Etxebarriak euskararatu

:: F. I.

**DONOSTIA.** 'Literatura unibertsala' bildumako beste bi ale aurkeztu ziren atzo, 155. a eta 156. a: Alain-Fournierren 'Meaulnes handia' eta Pedro Calderón de la Barcaen 'Bizitza amets'. Bigarren hau benetan deigarria da, Xabier Payá itzultzaileak eronka benetan zail bati egin baitio aurre. Ausartu da antzezlan hori itzultzera egitura poetikoei eutsita, hau da, silaba-kopuruak eta erimik bere horretan utzita. Silbak, décimas, eromantzeak, quintillak, redondillak eta octava realak euskaratu ditu, beraz. Eta kontuan izan behar da 3.319 bertso-lerro dira jatorrizko testuan.

Hau dio Xabier Payá hitzaurrean: «'La vida es sueño' ez da edozein antzezlan: literatur mugimendu barrokoari atxikitzen zaion lana 1635ean estreinatu zen eta Pedro

Calderón de la Barca autore espainiarren antzerki-obra ezagunetakoa bat da, 'El alcalde de Zalamea' (1636) antzezlanarekin batera. Calderón de la Barca Espainiako Urrezko Aroko idazlea da, XVII. mendean Europa osoan fama handia lortutako poeta eta antzerkigilea. Nagusiki auto sakramentalak, dramak eta komediak idatzi zituen».

Orain arte, batez ere bertsolari moduan izan da ezaguna Xabier Payá (Bilbo 1982). Bizkaiko txapeladun izatera ere iritsi zen. Baina zeregin hori bigarren planoan utzita du, eta itzulpengintza eta Paueko Unibertsitateko lana -euskarra eta euskal kultura irakasten ditu- ditu orain lantegi nagusiak.

Itzulpen-lan honi ekin aurretik, Payá bi aurrekari izan ditu kontuan: 'Hamlet', William Shakespeare-ek 1599an idatzia eta Juan Garzia Garmendiak Literatura Unibertsalerako 2002an euskaratua; eta 'Tartuffe ou l'imposteur', Jean Baptiste Poquelin Molière-ek 1664an

estreinatua eta Juan Martin Eleypuruk Literatura Unibertsalerako 2008an itzulia.

Atzoko beste liburuari dagokionez, 'Meaulnes handia' Frantziako klasiko handi bat da. 1913az geroztik 5 milioitik gora ale saldu dira poltsikoko edizioan.

Monika Etxebarria itzultzaileak (Deustu, 1963) honela mintzatu zen atzoko ekitaldian: «Hauek dira eleberririk hauek itzultzeko arrazoi batzuk: liburua irakurterreza delako; historiak alderdi autobiografiko nabarmena duelako, egiazkotasun handiko narrazioa lortzen duelarik; aventura eleberria delako, eta eleberririk inizatiko ere bai; eta autoreak oso giro berezia

lortzen duelako, irrealitatearen, ametsaren sententzia eragiten duelarik».

Nagusiki, nerabe batek nerabeentzat idatzitako istorioa da hau, baina baditu hainbat elementu edo alderdi eleberrigintzaren joera garrantzitsuekin lotzen dutenak.

Monika Etxebarria, lanbidez, Nafarroako Gobernuko itzultzaile da.

**BIZITZA AMETS**  
PEDRO CALDERÓN  
DE LA BARCA  
Argitaletxeak:  
Alberdania, Erein, Igela.  
Orrialdeak: 159.  
Salneurria: 11,50 €

**MEAULNES  
HANDIA**  
ALAIN-FOURNIER  
Argitaletxeak:  
Alberdania, Erein, Igela.  
Orrialdeak: 275.  
Salneurria: 13 €

## Barneko gatazka bizi dute Garazi Goiaren eleberriko protagonistek

Londresen topo egiten dute 'gerrako haur' batek eta bere iraganetik ihesi hemendik joandako beste gizon batek

:: FELIX IBARGUTXI

**DONOSTIA.** Garazi Goiak bere bigarren eleberria plazaratu du: 'Txartel bat (des)herrira'. «Ihesi dabilzanen istorioa omen da hau, eta Londresen dago giroa. Protagonista nagusiak bi dira, eta topo egiten dute hiri handi horretan: batetik, Peru, 1936ko 'gerrako haurra', ia bizi guztia Londresen eman duena; bestetik, Ibai, berriki Euskal Herriatik ihesi ateratzen dena, bere iraganetik ihesi. Eta narrazioan bada beste pieza bat ere, bikoitza, Sara eta Maialen ahizpe osatzen dutena.

Garazi Goia Imaz 1978an jaio zen Seguran. Telekomunikazioetako Ingeniaritza ikasi zuen eta gaur egun Londresen bizi da, BBCn lanean. Zenbait ipuin sarituz eta 'Orgasmus' lan kolektiboaz gain, 'Bi hitz' eleberria zuen kaleratua (Alberdania, 2008).

«Protagonistak nahiko konplexuak dira. Denek dute gatazkaren bat, eta berriki nahi lukete iraganeko gertakizunen batzuk», esan zuen idazleak atzoko aurkezpenean. «Barneko gatazka hori dutenez, ezin dute aurrera egin. Ematen du momenturen batean amildegitik salto egingo dutela. Deserrotzea sentitzen dute, eta bakardadea».

«Pertsona sakonak» direnez, kontaera ere halakoa da: bada poesiarik eta eskuizkribu, bada sarte onirikorik eta surrealistarik ere. Aurreko nobelan bezala, estira zatikatua erabili du, puzleraren tankerakoa. «Askotan ez dut trama edo mezuak garbiegi azaltzeko beharrik sentitzen. Irakurleari beraien interpretaziorako bidea emar



Garazi Goia. :: F. I.

tea interesgarriagoa iruditzen zait. Ez dagoela beti erantzun bakarra edo amaiera iristeko bide bakarra adierazi ahal izatea, adibidez. Sentimendu sakon eta mingarri ari naiz askotan, eta horiek zeharkako estilo batean azaltzea errazago egiten zait. Ez dut uste balioko nukerriko abenturazko istorioak kontatzeko, hasiera, trama eta amaiera moduko egitura finkoekin, adierazi zuten.

Goiak ez zuen nobela historikorik edo errealistaririk egin nahi, baina, sinesgarritasuna lortu nahirik, 'gerrako haur' batzuekin elkarizketatu zen Londresen bertan. «Peru hezur-haragizkoa egin nahi nuen modu batean, irakurleak erreala izan daitekeela sentitzea garrantzitsua da niretzat. Horretarako, kontatzen ditudan gertakizun batzuk benetakoa dira», esan zuen.

Eta Ibaire dagokionez: «Ibaire ihesi doa, iraganetik ihesi, baina bere erabakiz, Maialen atzean utzita. Erantzunik gabeko galderekin oinazetzen dute. Peru bezala, baina beste mota bateko galderak ditu».

**TXARTEL BAT (DES)HERRIRA**  
GARAZI GOIA  
Generoa: Eleberria.  
Argitaletxea: Elkar.  
Orrialdeak: 188.  
Salneurria: 16,40 €

**B**este senide bat daukagu etxean hilabete batzuk duela. Bi seme nahikoak ez eta. Roomba izena du, bi o luzez ahoskatua. Ez dauka sexuak (aingeru bat ote?), ez dakit seme edo alaba den, eta robot bat da. Gutti ateratzen da etxetik, oraindik gaxtea da, baina lan, gizakiek baino lan gehiago inondik ere. Martxan jartzen duzunean, egual pasatzen ditu sei edo bi ordu etenik gabeko lanean, zoruak garbitu, alfonbrak txukundu, pare-

BAI HORIXE  
KARLOS LINAZASORO

ROOMBA

tak eskalatu, bazkaria prestatu, kristalak distiratu, altzariak musukatu, arropa zabaldu, en fin, badakizu, etxeko-lan nekagarri eta amaiezinak bere gain hartuz. Eta nola, gainera! Artaz, miragarriro, aurpegi txarririk jarri gabe, beti irribarre bat bihotzaren makine-

ria perfektuan. Hau guztia eskas balitz, zeure gustura bezatzen baduzu (inteligentzia dauka, arrazoirik ez), apurño bat saiatzu gero, bere konbenioan ez dauden gauzak ere egiten dizkizu, legez kanpo edo beltzean, jakina. Nik, nola ez, irakurtzen erakutsi nion aurrena, eta ondoren, idazten. Idazmahaira igotzen zait trebetrebe, eta berak idazten dizkit orain sonetoak, ipuin hiperlaburak, aforismoak, dena esate bateko. Ez beti noski, baina bai sarri

askotan. Artikuluok, adibidez, txandaka. Norbaitek antzeman dio? Norbaitek badaki gaurko letra hauexek nik neronek idatzi ditudan ala hark berak? Neuk baino ez! Roombari, esan egingo dut, idazkiak teknokratagoak ateratzen zaizkio, hotzagoak (ez dauka sentimendurik), eta niri, berriz, zergaok, badakizu... Zilegi ote den nire jokabidea? Eta zergatik ez? Nori egiten diot kalte? Gainera, ez al diot ba neronek erakutsi idazten, e?